EUZKEL--ATALA

GAURKO EBANGELIOA

Joan. XV, 26-27; XVI, 1-4

Beinola Jesusek esan eutsen bere ikasleai: Nik Aitagandik bialduko deutsuedan Poz-emollea, Aitagandik datorran egiazko Ispiritua etorten danean, Ak emongo deutsue autorrera nitzaz; eta zuek bere emongo dozue autorrera, asieratik nigaz zabizeelako. Gauz oneik, gaizbideratu etzaitezen esan deutsuedaz. Sinagogaetatik yaurtiko zaitue, ta zuek ilten zaituezanak Jainkoari atsegin egin deutsola usteko daben garaia bere, etorriko da. Olango gauzak egingo deutsuez, Aita ta Ni ezagutzen ez gaituelako. Baiña nik esan deutsuedaz, garaia datorranean gomuta dagizuen, Nik iragarri neutsuezala.

ERRIETATIK

ARRASATE (Mondragón)

EUSKO IZTUNDEA TA LABORDA JAUNA'REN GARAIPEN AUNDIA

Iragarrita eguan lez gar aundiakin ospatu dira antzezki jai biak. Altzaga jaunak ta bere neska mutillak goi goira jaso dute gure izkuntza maitia, ta erri guztia asituta utzi dute euren trebetasunak. Larunbatian ordua eldu baño lenago "Cine Bedia" bete beterik eguen "Ramuntxo" ikusteko egarri bizixakin erritar eta Aretxabaletako oste aundiakin atal bitartietan Laborda yaunak abestu zuan. ¡Ta nola abestu! Laborda yauna ospatsu ospatsua i la entzute aundia eguan errian eta olantxe bere abots ederra guztiak txalo-aldi luziakin agertzen otzen zeiñ atsegin zan. Igandian beste izketarik etzan entzuten errian "Iztundea"-ren gurenda baño ikusi zutenak pozik eta etzutenak tamalez ta larunbatian oste aundia batu bazan zer zan igandian "Garbiñe" ikusten eta Laborda'ri entzuten batu zana erri ontatik iñoiz antzoki eta Cine etxietara juatia oitxuten ez dutenak ere ezuten nai geratu Altzaga agurgarria txalotu barik. Aretxabaleta erri guztia ere emen zan, Aznar' Gotzon euskaltzale sutsua buru zala anei esker Aznar. Aramayotarrek ere aldra ederra etorri ziran eta ez asko gutxiago oraiñ ondiño ikusita euki arren Bergara'tik ere eta Eskoriatza, Elorrixo eta abar. "Garbiñe" asko atsegindu zan eta Laborda yauna ere etzan aspertu abestutzen ez da gu ere eta Laborda yauna ere etzan aspertu abestutzen ez da gu ere bera txalotutzen, ta euskel antzerki jai biak gurendatsuak izan dira guztioentzat, eta berriz ainbat aguruen ikusteko izan gaitiela.

Antzerki egunian agurtu genduzan Donostiko Azkue Dunixi Bergara'ko "Izurme" euskel idazlia eta Deba'ko Markiegi' Polentzi bere emaztiakin.

LUISTARRAK GATZA'N

Igokunde egunian euki zuten ango luistar zintzuak eleiz jai eta batzar eder bat emetik eunen bat gazte juan ziran euren zuzendari eta ikurriñakin ta guztiak poz pozik etorri ziran. ¡Ederki gaztiak ez lotsatu siñesmena erakusten!

ABADE ETXIA

Ixa amaitu dabe lan guztiak eta ikusgarria geratzen da. Gurasuak ez daude aserre kristau ikasbidia euskeraz nun ikasi umetxuak euko dutelako. Zorionak

KIRIKIÑO SARIRAKO

txaunburu jaunai.

Len EUZKADI'n argitaldua 249,95.

"Raus" idazliak, 1; Azkoaga' Andoni, 2; Arin' Joseba Jokin, 5; Bidaburu' Balendin, 2; Unamuno' Gergori, 1.

Guztiz, 260,95.

(Jarraitzen du)

ENBEITA ALDE

Arin' Joseba Jokin, 10 laurleko; Ugalde Peli, 2; Maiztegi' Pilipa, 2; Aramayo'n erderaz itz egin zutenai kendua mendigoizalien batzarrian, 2. Guztiz, 16.

(Jarraitzen du)

UDALA MENDI.

AZPEITIA

UME GAXUA!

ten bere senitartean zegoan iru urteko Azkoiti'tik etorrita, emengo basarri baumetxo bat. Lengo batian, illunabarrian, gogoratu zitzaion Azkoitira bidia artzia, eta senidiak konturatu orduko aldendu zan basarritik. Baita ere mendian galdu. Sartu zan gaba eta iñun ere umien arrastorik ez. Basarritar taldetxo bat gau guztian ibilli zan, jo batera eta jo bestera, ezen aztarrenik atera barik. Goizian aurkitu zuten zelai batian lo gogorrian. Gaxua negarrak eta luak errendituta bai zan.

UMIEN JAUNARTZEA

Ostegunian egin zuten beren "komunio aundia" emengo neska-mutil talde batek. Zer elizkizun mamintsua ura! Zer nolako gogoramen ederrak igaro ziran nere barruan! Zer tamala urte aietara biurtu eziña!

ARPIDEA

Azpeitiarrak! lo al zaudete? Ez al da zuen barruan euskel odolik? Ez al zerate euskera amaren magalean aziak? Ez da batere ezagun. Kirikiño saria'rako arpidea zabaldu zan eta oso geldi dua; obeto esateko, geldi dago. Ez al dezute lotsarik batez ere, zuek euskel-zaleak, zeratela esaten dezutenok? Badakizute, Erruki Etxeko Errena'ri, Zentro Katolikoko Gereta'ri edo Pedroenea jatetxian eman zer-edo-zer Lenak 19,50 laurleko, R. O., 5 laurleko; I.' B., 0,50. Guztiz, 25 laurleko.

GAXORIK

Erruki-Etxian eleizakuak artuta gaizki xamar dago Urrestillako basarritar bat.

Baita ere gaizki dago Etxeberria' Leopol.

SENDATUTA

Kalian agurtu degu Zendoia' Juan bere gaxoan asko pizkoturta.

"BAR" BERRIAK

Kasinon iriki dabe "bar" eder eta "modakua". Beste bat ere laster izango omen degu, bada Astigarraga' Roke. Jaunak beste "bar" oietako bat ipintzea dijua. Irabazte onak opa dizutet.

Erlokoa oitura garbi eta euskelzale.

DONOSTIA

E. ESNALEAREN ITZALDIA

Gaur goizeko amaika terdietan, Azkue' Dunixi'k (Dunixi) bere itzaldia izango du.

"Atzoko" Donostia" gai au erabilliaz, itzaldi atsegiña gure lagun zar onek, egingo digula ziur gaude.

IZTUNDEA ARRASATE'N

Len uri ortan, iztundea izan zanean, gurenda osoko antzoki jaiak izan ziran; orain egun diranak berriz, guren da osokoak bañan, osoagoak izan dira.

Au dala ta, iztundea oso pozik ta txaloz beterik Arrasatetik etorri da. Gurenda abekin asko ta asko alaitzen da gure eusko biotza, ta guk ere txalotu ta eskertzen ditugu, jai oien antolatzalle zintzoak. Laborda, gaiñ gañeko abeslari bikaiñ onek ere, bere abots ederraz atsegiñez bete ditu arrasatearrak, ¡ori dek abeslaria ori! Berriz ere, udazkenian orrea juateko naya dagoala diote arrasatearrak. Eskarrik asko "Udala-mendi" ta lagunak, eskerrrik-asko.

EUSKO ASTEA

Uztaillaren 13'tik 21'ra izango da emen irugarren eusko astea.

Beti Donosti ta donostiarrengaitik, zer uda aldian eusko festik egiten, ¿nun egiten dira ba zuen errietan? Betor gure gogoko eusko astea, emen bakarrik egiten dan eusko astea.

AGURTU

Ostegunian E. Etxean agurtu genuen, emengo bazkide, ta Oñate'n bizi dan Berasaluze' Pantzeska, euskelzale zintzoa.

KIRIKIÑO SARIA

Lendik, 1.336 lauerleko.

Balzola' Gotzon, 2. Oraiñ arte, 1.338

Batzubek itxi, ta beste batek arpide au garagarrillan ixteko eskatzen dubela, arriturik iku i degu.

Zumarragako batzar nagusiak, sari ontaz artu zuben asmoa 1929 garren urte osoan, arpide au irikita edukitzia izan zan, ta jatorrizko gauza litzakela ta nago, batzar nagusi batek artutako asmoa aldatzia biar bada, beste batzar nagusi batek aldatzia, gure iritziz asmoak aldatzen asten bagera, eusko asmo ta erabakiakin, katua umiakin bezela ibiltzea izango litzake ta.

Badira emen, ta tamalez orobat noski Bilbo, Tolosa, Zarauz ta beste uri geyenetan, arpide ontan ardi bat ere eman ez duten euskelzaliak dirala, dioten asko, abek danak zerbait eman dezaten, gogoz alegindu biar gera, orriak zabalduaz edo, ontan gogotik sayatu biar giñake, ¿bañan arpidea itxi? Urtebetean amar milla lauerleko biltzeko asmoa artu, ta erdik bildu bañan len sei illabete igaro ordurako, diru geyegi balego bezela arpidea itxi, ¿zertarako "Lizardi" azkarra zertarako? ¿Kirikiño saritzaz lotsatu ez bada aspertu geraia adirazteko?

Goratu dezagun emen biar dan eran Kirikiño (G. B.3 zintzo ta apal onen izen aundia.

ATARRENE.

DURANGO

ENBEITA' KEPA'REN ALDEZ

Nire lengo idazkiyan esaten neban lez eregita jarraitzen dau arpide au guren elerkari maitiarentzat zein dan Enbeita' Kepa, ez aztu ba durangarrok beragaz, ba berak emon badauzku ain egun alajak bere olerkijakaz guk be ordaindu biar dautsagu bera lanak eta oin daukagu aukeria erakusteko berentzat gure aldetik laguntasuna eta maitasuna.

Zuzendu bada zeuen txindijak bere arpidera eta erakutsi ja emonagaz beste askori guk erritarrok biti izan garien lez, Batzordia zain dago zeuen txindijak artzeko, ez egon azkenengo egunerarte itxoreten. Beste baten argitaldako dozuz emondako ixenak.

EGAZKIN BAT

Igaro dan eguenian arratsalde erdi inguruan agertu zan Durango gañetik tramankulu au, Donostia aldetik itxuraz Bilboruntz, baña gerorago Mugarra mendi gañetik Gazteiz aldera juan zan.

Iñok ezakizen zein izen leitekien.

AZENTZIO EGUNA

Jai aundi au ospatu genduan egunian, erri ontan elizkizun ederrak egin ziran, gorderik jai lantegi guztijetan.

Emengo geixo-etxian be jai aundi au ospatu eben eguerdijan oturuntza eukiñik eben bertako geixo eta enparauak, eresbatzak be kontziertua berta jo eban eta amaitu eban Izkurdi'ko zelaijan, txalotuak izanik eurok.

AUTESKUNDIA

Gaur amaiketan emengo Udal etxian ixango da oskilgiñen eta soiñ jantzijen auteskundia, euren "Comite paritario" ixentautzeko, erri onetatik iru diraz dagozenak eta ainbeste ordiazko.

¡Oskigiñok! agertu igandian danok zeun auterkija emoten.

OSTIKOLARIJAK

Gaur arratsaldian jokatuko dabe Ibaiondo'ko zelajan gure ostikolari gaztiak "Durango deritxon aldrian, Getxo'ko aldriaren aurka, emengo aldria ixango da: Ansoleaga, Zabala, Irartortza, Elorriaga, Azurmendi, Ortueta, Rubio, Jayo, Sarmantón, Uribelarrea eta Elorriaga.

Poz aundijagaz doiaz gure mutikuok eta erabazteko uztia dauke.

Auxe opa dautsuet neuk be ¡aurrera mutillak!

NASKALDIJA

Egun batzuk igaro ta bere anaigaz Urduliz'en etorri da etxera gure lagun dan Perugorria Iñaki.

Bai ta egotaldi luze bat egin da etorri du emengo neskatillia Arnoriaga' Esperanza.

ERROTARI.

ELGOIBAR

JAUPA BAT

Gaur igandez goizeko amarretan izango da Alzola'ko txadonan jaupa nagusi abestu bat "Lagun Onak" deitzen dioten Batzokikuak abestuta bertako orquesta'ko zuzendari eta bertako bazkide izandu zan Zubizarreta' Jone neskatilla zanaren animaren gogo alde (Goian bego). Abestuko dute iru abotsetara Perosi'ren jaupa eder bat, ofertoruan "O sacrum convivium" eta bukatzeko errespontsua "Liberame".

¡Elgoibartarrak!... Jone neskatillia maite izan degunok guztiok juan bear degu gaur Alzola'ra, au eta geiago merezi du Jone'k eta.

GORA BERAK

Jun zan illian uri onetan jaio dira zazpi; ezkondu bat eta illak bost.

Aragitan jan dira 7.987 kilo aragi.

ERLOJU BERRI BAT

Laister jarriko dute Deun Laurentzi'ko eleiza'ko torrian erloju berri bat diote bederatzi millatik amar milla errial kostatuko dala, eta Udalak milla eta bosteun laurleko ematen ditu ontarako.

EZKONTZAK

Jun zan asteazkenian uztertu ziran txadon nagusian Gabriel lo' Silbino gure laguna, Etxaniz' Alberte neskatilla politarekin. Baita ere uztertu da atzo larunbatez Donosti'ko Deun Iñaki txadonan gura lagun dan Igartua' Erroman, Edurza' Jone donostiar neska lirain eta politarekin.

Artu nere zorion agurra, eta luzaroko izan deitezela uztarri berri bi orrek.

JAIOTZA

Mutiko jaio berri bat eduki dute gure lagun dan Leunda-ta Landerrek eta bere emaztiak. Bai ama eta mutikua ongi arkitzen dira zorionak.

LURDES'ERA

Datorren illan 14'an izango dau Lurdes'erako peregrinaziorako izan abizenak eman dituzte 26'rek, beren izen abizenak, eta beste bi zorkera suertera atera dira tokaturik Ezeiza' Joseba Andoni apaiza, eta Loyola' Miren'eri.

BESTE EZKONTZA BAT

Gaur, larunbatea, ezkondu dira emengo txadon nagusian Iruretagoina' Errupeta "Errotaberri"-ko mutilla, Elustondo' Brijida Maiorta'ko neskatillia'rekin. Zorionak zueri ere.

ONGI ETORRIA

Ala Goiko Jaunak nai izan deiala... emen agertu jaku euskel-idazle gazte berri bat "Karakate" izenarekin, bai zeguan uri onetan alako baten bearra, Karakate ez ba aspertu lan oneri eta jarrai sarri-sarri, izparrak bialtzen neuk ere noizian bein bialduko ditut eta. Ongi etorria izan zaitu zela gure artera.

AIXERIXA.

GETXO-NEGURI

"KIRIKIÑO SARIJA"

Pitika, pitika bagoaz aurrera. Lendik, 181 laurleko. Figueroa' Joseba Andoni, 3; Basañez' Kerman, 1; Gaztelurrutua' Ezekel, 3; Momoitio' Kollestin, 2. Orain arte, 190 laurleko. Batuta daukoguzan diruok,

EUZKADI'ra agindu bear geunkez, ta orregaitik ona ixango litzake zeozer daukien danok emotia, sari onetarako batuteko arduria daukogunari, eruan dagigun, diñodan lez. Ori gora bera, arpidiak zabalik jarraitzen dau, baña, orain arte batu doguna, agindu bear dogu.

ENBEITA' ALDE

Emen be, apurka-apurka gorantza goaz. Lendik, 23 laurleko, G.' J., 5; G.' P., 5; G.' K., 5; G.' B., 5; Basañez Kerman, 1; Gaztelurrutia' Ezekel, 3. Orain arte, 47 laurleko. Geure aldiskide Gaubeka' Joseba Mirena'k lagunduten dausku arpide onetan ta diño, aurreko egun baten emongo dauskusala beste txindi batzuk. Ederto, Joseba Mirena, ta alan egin biar da.

EGURALDIJA

Naiko txarra dua, orrilla'ri dagokiona ixateko. Baserritarrak diñaude ze, olan jarraitzen badau galduak ixan bear dabela aurten be, ze rtoak eguraldi oneikaz ezin erain dabezala, ta erainta dagozanak, otsagaitik oso gaxo datozala. Tira ba, poz osoa noiz ixango ete dogu ludi onetan, onetarako ondo bada, atarako txarto, ta beti alan. Itxaropena euki daigun, Jaungoikoagan, geure aldetik bear dana ipiñi ezkeron ganeztikua Berak emongo dausku ta.

ALANGOKO BAT.

IZURTZA

LENENGO JAUNARTZEA

Igaro dau asteko Barikuan euki izan eben erri onetako txadonan zazpi zortzi urte inguruko neskato mutikotxuak lenengo Jaun-artzia. Ludi onetan euki leikenik egunik zoragarri eta zerukorrenetariko bat izan dozue gaztetxuak, eta Donokiko gotzontxuak zaindu ko al zaitue zeuen ibillera guztietan.

ALDUNDIKO BASETXEAK

Igandeko zortziretako mezan irakurri eban txaunburuak Diputaziño edo Aldundiak bialduriko basetxe barriak egiteko Bizkai guztian, artu dituezan erabagiak. Bizkaiko aldundiak artu dituezan erabagiak aurrera eruaten badauz Euskal-erriko guztiz onurakorrak izango dira, batez bere lugin edo labrantzorientzako ezkutitz au eleixa edo txadoneko atian dago eta txaunburuak gutxi baño irakurri ezeban, legez ondo izango litzake bertaratu eta irakurtia al daben guztiak eta bertan aurkituko dira zelako onura eta aurrerapen aundiak izango dabezan gaurtik aurrera basetxetan lana egin da bizi gura dabenak.

NOR EZKONTZEN DA?

Neskatilla buru argi, arpegi alai, gorputz lirain eta tayu onetako bat. Erri onetarikua ete da? Bai. Bera bixi dau etxiaren osteko baulkaratik ikusten da Arbizolako lantegi Ola, Oiz mendia, Anboto eta Mendiola'ko aixetzko errota zarra, eta bere ixenaren lenengo izkia euzkeraz da I.

Nogaz? Mutil lodi, Euskel-eredu, morrosko eder bategaz, erri onetakua be ezta baña egunero etorri biar izaten dau lanian Arbizolako Olara. Aitarik eztauko eta bere Ama eta arrebiak asko maite dabe bera dalako bape utsune bako mutil guztiz ixilla eta eleizkoia. Gaurko naikua da eta urrenguan beste zertzelada argi eta garbiaguak.

EGURALDIA

Egunokin euri asko botaten dau eta betozko illunagaz agertzen da eguraldia aolan jarraituten badau abere edo ganaduentzako jana ugarituko da eta mota guztietarakuak gixenduko dira baña bai karakola eta baria be.

ARRENTZAK

Bste urtetan oitura dau legez egin dira. Basatxono edo ermitetara arrentzak endore jauna duru dala. Eguastenian ezan egin Sta Agata basatxonora euria izan zan da.

NASKALDIA

Bilbotik etorri dira Gangutia Satur Irastortza Eusebi eta Azkunaga Bingen. Bermeotik etorri dira Gerediaga Imanol, Gerediaga' Kepa eta Gerediaga Markelin. Arabako Salvatierra'ra juan da aldi baterako Gerediaga' Marka.

Gazteiz'tik Zuatzua Salur Idazkaria.

ARTZAIÑA.

LEGAZPI'TIK

ERRI PESTAK

Oso ondo igaro ditugu aurtengo auek lenengo egunen goizen goizetik asi eta jai gabeko auek arte ez giñan minutubat gelditu egunero lo egiteko piskabat besterik ez.

Santa Cruz egunari asiera eman gendion euri akaragarriakin bañan Gurutz Donearen birtuteagaz edo eztakit zergatik bein goizo ameikak ezkero etzigun egin jaigabeko bederatziakarte.

EZPATA DANTZARIAK

Lenengo egunean goizetik aurreko batean izaten nituan ezpata dantzariak egin zigun erakusaldi polit bat ondoren dantzasoka ateraz oso edeski eta txalogarri egin zuten neskatzak ekin ez bezela jantziak agertu zitzaigun, bañan zer egingo degu ba patzientzia, omen ondoren Zumarrako erez batzarrak jo aldi polit bat.

Ondoren makilla-dantza, au ere oso ederki egin zigun makinabat txalo entzun zuten gure mutil gazte oiek eta ondo irabaziak gañera.

Oen ondorendik asi eta gabeko ameikek arte dantza guria zutenak astindu ziran aiek ezpaitu.

Zapatuan kapela dantza mutil pilla galantak atera zuan ondoren kale jira egitiaz.

Arratsaldean pelota partiduak. Bi zumarratarrak beste bi autsuela jarrai, autzuelarak irabazi zuten, ondoren zaldu eta Bildotzolak, Janonerri eta Arrolai, lenengoak irabazi zuten aixa.

Amaikak arte aurreko egunean bezela.

NASKALDIA

Elostzatar Iñaki gure lagun eta abeslari jatorra Orfeon Vasko'n Sevilla'ra juan da. Ibilladi ona egin eta ondo artuak izatea opa dizut.

—Madrid'en egon aldibat egin da biurtu da etzera Alustizabar Markelin neska gaztea.

Ongi etorri.

—Ugarte' Nikolaren emazteak alabatso bat izan du. Zorionak.

—Masokolako etzekoandre zan Apaolaza' Dominike Asenzio egunean il zan.

Euren samintasunean laguntzen diot bere sendiari.

—Loreak. Maiatzeko loreak oso jende asko juanaz egiten ari dira.

—Lengo igande gabean emengo Yazola basetxekoak artalde batekin Oñati aldean zijoaztela biribil batek jo ta 23 ardi il zaio eta ganera 14 urteko mutikotxoari iztarra autzi.

—Orain illabete Afrika'ra juan gudaritzara eta atzera oso biztu da bere etzera, emen bizi dan ugarte Alejo.

Nere ongi etorria.

—Pesta egun oietan emen agurtu ditugu beste askoxu artean errikoseme dan Segura' Josus, Linazasoro' Karlos, "Altzeta", eta bizkaitar mordoska bat mutil da neska San Salvador aldekoak uste det izenik ez jakitea asko samintzen det, bañan barkatu zuek bezelakorik etzion da.

ARTZAITSO.

LEKEITIO

Eguben goxaldian urten ziran arrantzaliak euren lurrun-ontzi edo xaporretan bokart-arrantzura, ta kairatu diranian bat gitxiago agertu da. ¿Nun geratu da ba bakar ori? Ogoño aldian kaldariak estanda izugarrija egin da itxaspian eskutau da, mutil gazte bi Erkiaga' Joseba Mirena ta Erkiaga' Saturniñ, anayak, bixi barik itxi dituala, ta beste batzuk zaurituta. Izpar samingarrija, gero, batez be aita-amentzako ordu gitxiren atzetik olan seme kutun barik aurkitutia.

Ondarrutar beste lurrunontziya, andik urre zanak, batu zituan zoritxar orretik igezi ziran arrantzaliak, eta baita bidian etozala il yakon gazte Erkiagatarra bi; beste onen anaya ikusi be ezeben egin.

Arin zabaldu zan erriyan jazo zana, arritu ta konkortuta geraturik danak. Baita erritar lurrunontzi danak be laster batu ziran kayan, erakusteko orrela atsekabia. Erri guztiya onetan bat eginda egon da, azi kofradijatik ikurrin baltza yagijagaz kaiganian eta udal-etxeko agintarijaraño eresbatzari ez yoteko dantza-tokijan aginduagaz.

Illen alde otoyak baño ezin eskatu geinkez; baña guraso errukarrijai ezin geinkijoez semerik barriro ekarri, eta utsune orrek dakartzoen samintasuna arinduten ez dautsagu laguntuko arpide edo suskriziño bategaz? Nai Kofradijak edo Udaletxiak edegi leike, ta eztot uste iñor be laurleko bat bada be emon barik geratuko litzakenik. Ezta aztu biar lagun-urkuak beti be alkarri lagundu biar dautsiela, geyago be zoritxarretan. Gaur zuri ta bijar ixan lei neuri.

♣ ♣ ♣

Urtebete inguru da erabagi ebela emen dagozan diru-etxeko agintarijak domeketan, Jaunaren eguna zan ezkero, landolak edo opiziñak itxita eukitia. Bete be ziatz-ziatz egiten dabe. Baña etziran edo gomutau urtero eguazala beste egun batzuk eleiziak autu dabezanak yaitzat eta diranak domekia baxen aundiyak, geyago ezpadira gero. Onexetan edegita ikusten dira diru-etxe batzuk, eta nire ustez errijak pozik artungo leuke itxirik ikusiko ba-lebez, ba inor yuaten bada dirutan edo dirua ipinten ezta geyenetan naieskua, yakelako ezpada zabalik aurkitzen dabezalako landolak. Diru ipinte edo artzia bardin-bardin egingo leukie urrengo egunian be.

♣ ♣ ♣

Lengo egunian il zan Goitia' Nekane neskatillia, Etxeberrieta' Gotzonen lobia; baita Basabe' Miren Terese, Getxo'n il onen 5'an Basabe' Kepa'ren alabia; Urkiaga' Bartolomañ geure lagun Jon'aren aita, be bai. Danon senidiai laguntzen dautset atsekabian.

♣ ♣ ♣

Geure lagun Garamendi' Portunata Sota ta Aznar'en "Atxerri-mendi" lurrun-ontziko pillotutzat autu dabe-ta astelenian urtengo da Bilbao'tik Buenos Aires'rantz. Bidali zorijontzuba opa dautzut. ¿Zer edo-zer etzenduke idatziko euskeraz EUZKADI izparringirako errimia zara orretan bada-ta? Viajeko zertzeladak, zeintzuk erri ikertu dozuzan, onen oiturak, eta beste enparauak. Orrela yakingo geunke nundik nora zoyazan, zein tokitik zabiltzazen eta abar.

♣ ♣ ♣

Lengo egunian niñuana Kirikiño sarijatzaz igitu dituz bat baño geyago ta etorri be bai dirua ekarten. ¡Lekeitiarrok! beti goitik ibilli garanok bai liorrez eta itxasoz (irakurri bestela zer diñuan udal-etxe buruan imiñita dagon idazkunak), ¿geratuko gara oinguan laurleko batzukaitik beste errijen azpitik? Beti be erakutsi dau uri onek euskotasuna, ta Kirikiño ixan dan ezkero euskeriari eragin dautsona bultzakadarik aundijena, abegi onez artun biar dogu gixon aren oroimenian egingo dan edozeri. Sakeletik atara egixue laukotxu bat baño ezpada-be ta emon "Beti-Bat"-eri, beronek poz-pozik ipiñiko dau dandana laster "Orixe"-n eskubetan.

Ara emen nortzuk emon daben:

Elordi' Luka, 2 laurleko; Erkiaga' Estepan, 2; Etxebarrieta' Jon, 2; Etxebarrieta' Domeka, 1; Etxebarrieta' Polendin, 1; Etxebarrieta' Joseba Lon, 1; Bengoetxea' Danel (bigarrenez), 1; Garabilla' Mikel, 1,50; Larreta alarguna, 2; Paredes Guaresti, 2. Lendik, 23. Guztitara, 38,550.

♣ ♣ ♣

Kanpa-otsera oetik yagi gara gaur goixaldian su ikaragarrijagaz erreten egualako ontzi-landola. Ostia arin batu da, baña suak lan andiya eginda eukan lez laster iruntsi dituz barruan eguazan sura ta potiñak. Eskerrak albuan dagon etxia ondo aldeztu ebela ta etxako surik eldu, bestela nok daki zer gertauko zan.

Dana dala kalte aundijak egin dituz. Diñue etxia asegurata egon dala, baña ez ontzi-landola.

BETI-BAT.

MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Bilbo'ra yuan zan Lete' Domeka.

—Asteartian egon ziran emen Pagola' Koldobika ta Markaida' Imanol abade yaunak.

—Bilbo'tik etorri ziran Belakortu' Yon, Zabarta' Benite ta Arteaga' Jakinde.

—Igandian egon zan emen Oyarzabal' Gotzon Bilbo'ko mendigoizalia.

—Emen aldi luze bat igarota Zaratamo' ra yuan zan Ortuoste' Kaulde.

—Urkiola'tik etorrita emen egon zan biyan Amantegi' Emetere andrea.

AZKONARRAK

Izurtza'ko "Artzaiña"-k igandeko bere idazkiyan esaten eban, ango ostikolari "Ogigaztaiak" gogor dabiltzala gertetan emengo "Azkonarrak" ondo irebazita daukien txapela kentzeko. ¡Lekutan yauk txapela kentzie! Egiñ-egiñian be, iñoz baño gogorrau aurkitzen dozak gure Azkonarrok; artue sendo yanda sekuleko plantosuen yauzek ba ontxe, ta ez uste aikomaikuetan ibilteko modukuek diranik, oneen ostikadiak keie ataraten yok gero.

Izurtzarrok, apatxok ondo zorroztu biarko dozuez Azkonarrai irebazteko, bestela galduek zaree. Ia ba gertau zaiteze orrilla'ren azkenetarako edo bagilla'ren lenengorako, ta orduan ikusiko da zuen adoria noraño eltzen dan.

ERIOTZA

Eguenian Elizakuak artuta, astelen goizian il zan Sagasta' Bernarde, bere bizitzako larogei urtegaz. Bere obiraltzia asteartian izan zan, gente askok lagundurik

Erriyan danok maite izan dogu Bernardetxu txiro ta ona izan dalako; baita neskato-mutikuak be maite izan dabe, baña batez be neskatuak, ba, oneek euren eskuz egiñiko lora-ustai polit bat opaldu eutsien Bernardetxuen soñari.

Yaunak betiko atsedenian euki bei.

OSATEBAKUNTZIA

Santurtze'ko "Aguirre" deritxon umien osatetxian osateba' antza eginda ondo aurkituten da, Artzubiko Ortuoste' Bitoren mutiko zoliya. Arin osatu Bitorentxu.

MENDIGOIZALIAK

Igandian etorri ziran emengo atx eta mendiyetara, Durango'ko Rusia-Gaztañerre'ko mendizale aldra bat. Laurentzi Deunaren basotxono ondoko zugaztiyan eguna igaro eben. An izan zan aspaldiyon basotik izan dan Zumelai'ko artzaña be, onek bazkal ostian Durangoarren pozgarri yo zituan mendi usaiñeko alboka soñu ederrak.

MAÑARIKO.

MUTRIKU

KIRIKIÑO SARIA

Ez genduan uste kilometro erditik igaroko giñanik, baño kilometro erdia ere, osoa ere iritxiko gerala uste degu; zergatik arrai aundi xamarrak oraindik agertzeko daude... ta neska gaztiak agertzen asi diradelako.

Lendik, 47 laurleko.

Ibaibarriaga' Andoni, 1; Mirentxu, 0,25; Ibirrixako neska bat, 0,20; Arkotxa' Tomasa, 1; Arkotxa' K., 1; Maiz' Ebaristo, 1; Agirre' Kandido, 1; Egurbide' Pako, 1; Egurbide'ren Gereka Mari Jesus, 1; Neska polit bat, 1,30. Guztira, 55,75.

Or bialtzen dizkizut 50 laurleko lenengo emakune.

ASKETSI

Badakit kanpuan bizi diran Mutrikuarrak onezkero asarre xamar egongo dirana erriko izparrik aspaldian ez datorrenian; baño ze egingo zayo ba? pazientzia artu biar, bada au idazten duanak ere pozik irakurriko lituzke erriko berriak; kanpuan aste osua igaro ta izparrak biltzia lan zalla dalako.

ABERRI.

ZARAUTZ

Lengo egunean txadon nagusiko aretoan izan zan batzar batean autatu zituzten ordelari batzuk Aste Doneko ibildeunean izaten diran tresna berriak erosteko txindia biltzeko.

Or zera orain ere "Mendi-lauta"? zuk narrua basaurdiak bezin lodiya izan bear dezu aurpegi alde'etan bada eskatu biar alda onetarako "Mendi-lauta"... beste artarako "Mendilauta"... jakiten badute Mikeletiak...

SASKI-NASKI

Kaperotxipi margolari ospatsua Madritik etorri da.

Larunbatian, ezkondu ko dira Beroiz' Nikolas Larreina Franziskakin. Zorionak.

Donostiko osatetxe batean il da Aramendi' Angel uri onetako bide zaya. (Goyan bego).

Zerura igo da Eskorta' Josebaren bi urteko semetxoa.

Ikurton Deunak artuko arkitzen da Etxabe' Josebe erri onetako kuarpelariaren ama. Arin osatu.

Entzun degu bazkun berri bat sortu dala udaran ondartzako bustialdietako tramankuluak ipintzeko ekarririk.

Donosti'tik berrogei etxol edo kaseta. Orain ez dute ezango arrotzak "vamos en albornoz de casa por ser una indecencia las casetas que existen" eta aitzaki orrekin ez dira ibiliko karrikatik, karrika beren ezurrak erakusten ineauteriak balira bezela.

ARITZA.

ZEANURI

DEUN IXIDOR LUGIÑA

Urtero lez illa onen 15 izango da erri onetan jaya onen ospakundia. Deun Ixidor elexan meza abestua itzaldia Uriarte Pedro jaunak. Arratzaldian txistu otsian yolasa.

ASENTSIO LETAÑEK

Iru egunian oste andia erdu da Andra Mari elexa nagosira Pidade'tik ibil-deuna arrentzak abestu bitartian ondoren Angelis meza abestua izanik.

Jauna Zerura "Igokundea" Asentsio eguna.

Amaikatan Andra-Mari elexan "Tedeun Laudamus" jaupa abestu zan. Andikiro itzaldie egin eban parroko jauna igokunde aitzaz. Arratsaldean lorak da besperak egon ziran erri guztiak abestute.

NASKALDIJA

Donostia'tik bilbelian etorri da Emilia' Moyua Arriola (Markesa de Rocaverde) Andaluzia'tik ango lekaretxeetako nagosi da Zuluaga Aita Pantzeskatarra.

ELEIZ ORRIA

Ila onetakoak dakarren gaya:

Goizpar-Ebanjelioa. Orrilla Neketzue ondasun guztien iturburu egizu. Kristinau ikasbidea, ipuña (jasorikoa) Eleiz-Egutegia irakurten dogu bertan. Lugiñen zaindari dan santu onen jaie, oin artean lez, elezkizunetara danok etorri ta legezko olgeta garbietan zeuon gogoa alaitu ta Zeanuritar zintzoai datorkien lez eizue.

ERIOTZAK

Undurraga'ko auzunian larogetaka urtiakaz ilda Magdalena Abasolo (G. B.), Zamudio'ko txaunburu jaun Zuluaga' Jonen izekoa. Oste andiagaz obiratu zan martisenian. Orbetzuko auzunian Etxebarria Laureano (G. B.) aspaldien gexorik; doctor'ren seme eskola mulil-solia irakasleak diñauzkuñez. Obiratzian Undurragako ikastolako mutillak lagundu dautze auzo irakasle Eliseo jauna'gaz. ¡Erruki-egintza gomutagarria!

Otoi ba auron arimen alde.

KARLISTE OSPETSUA

Bilbo'n bizi izan da 87 urtegaz ilda Isabel Eulojio jauna, erri onetako semea Arragiko auzunian yayoa. Karlistan gudan etzute andia artu eban Axpe Gaztelua azaron artian arturik ia gudal bururaño eldu zan. Antxiña'ko erako gizon benetako da zuzena izan da (G. B.) da laguntze dautsgu atsekean sendiari da otoi bat gogoarendalde.

EMENGO IKASTOLETAKO UMIAK

Laster daude asmua, egualdi-eder bat agertzen danian yoan etorri bat egiteko bilbel (automovil) nagosietan ikastoletako urentxoenak ikertuko dituez, Bilbo, Botron, Gorliz ta abar, ¡asmo ederra benetan!

ZARAGOZA'RA

Emendik be bai dago asmoa (J. 1.) Ikorriñagaz yoateko 20, 21 da 22 uri atan egindo diran eliskixun ospetsuetara.

LOURDESKO BIDEZKUNDERA

Bai dagoz ixenak emonda bidezkunderako da egunokaz amaituten da ixen emoten.

ENBEITA OLESKARI OSPETZUARENTZA

Sagarna' Gabino, 1 laurleko; Atutxa' Gregorio, 0,25; Sagarna' Pedro, 0,50; Atutxa' Jose, 0,25; Gortazar' Eugenio, 0,25; Sagarna' Juan, 0,50; Rekalde' Agustin, 0,25; Intxaurraga' Juan, 0,50; Izagirre' Franzisko, 0,50; Etxezarraga' Ignacio, 0,50; Ibarrondo' Martin, 0,50; Intxaurraga' Franzisko, 1,50; Mutil bik, 1; Beste bik, 1,25; Goikoetxea' Eleuterik, 5; Manterola' Erramon, 5; Atutxa' Eulogi, 1; "Baserritar Bat", 5. Guztiz, 24,75 laurleko.

BASERRITAR BAT.

NOVEDADES PARA REGALOS
Saturnino Cortna
ASCAO, 2.

BAT ETA BESTE

IRITZIAK

Euskel egunerokua ateratzeko dirua ta dirua ta zoriyoneko dirua bear dala irakurtzen det aspaldi ontan, eta ainbeste diru zaratarekin ia ia sinistu erazi didazute ene anai maiteak txindiakin ¡zas! euskeldun ori gurekin degula edo.

¡¡Irakurle euskeldunak eta euskel zaletasuna txindiabein erosteko asmorik ez al dezute ala ere izango!!

¡Ez, orrelako asmorik ez dezute noski!

¿Zer bada? Bada... bada... onik onela ulertzen ditut beintzat zuben asmuak.

Euskel egunkaria ateratzeko bear diran, irarkola, banakola, idazlari eta trepetxu guziyak inguratzeko, aneika ¡asko baña! laurleko bea. dirala. ¿Ez da ala?

Tira bada, nik ere nere iritzia naiz ta motell ta txiroa izan emango dizutet gai on.

Or dijoaleizute:

Zenbat anei laurleko bear dirala egunkaria ateratzeko esan dizleiguzute? 100.000 laurleko ezta?

Lenengotik diru pillo aundiya dala esaten du dirutza or